TXABOLAK BILBON

1950eko hamarkadan, Bilboko inguruko mendietan, txabolismo prozesu garrantzitsu bat eman zen, non gizarte, ekonomia eta hirigintza baldintzak oso eskasak izan ziren.

Ortoargazkiak informazio baliabide on bat dira prozesu hura kokatzeko eta banatzeko. Oro har, 1945eko aire argazkian, A) bildumakoa, ez da txabolen multzorik atzematen, baina 1955-56koak, berriz, argi eta garbi adierazten ditu.

Txabolak udal lurraldeetan edo lurralde pribatuetan eraikitzen ziren (jabeei ordaindu ondoren), administrazio publiko desberdinak, nolabait, elkar bizirik, bertan eraikitzea debekatuta izan arren, biztanleak etxebizitzan sartu ondoren, ezin zelako eraitsi.

Txaboletako biztanle berriek euren etxebizitza berria eraikitzeko aukeratutako partzela mugatzen zuten hesolen eta soken bidez. Txabolak ondoan bizi eta herrian zegoeneko kokatuta zeuden beste biztanleen laguntzarekin eraikitzen ziren. Eraikuntza horiek gauean egiten ziren, egunean zehar lanera joan behar zirelako eta eraikuntza lanak eten egitea saihesteko, ilegalak baitziren.

Mugatutako partzela gehienek malda zutenez, lehenengo lana azalera berdintzean zetzan, eta horretarako, zati bat inausten zuten eta bestea, berriz, lurrez betetzen zuten. Prozedura horren eraginez, lur mugitzeak txaboletako biztanleek aurre egin beharreko arriskuetako bat zen, prozesu guztia intuizioaren arabera egiten baitzen, ezagutza teknikorik gabe.


Oin zuzenek eta egurrezko habeek egitura osatzen zuten. Oro har, kanpoko hormak ere egurrezkoak ziren, baina horietako zenbaitetan adreilua erabili zen. Estalkiak oholtza baten bidez osatzen ziren, kanpotik, asfaltozko geruza batez estaliz eta gainean harriak ipiniz, egiturari hobeto itsasteko. Normalean, solairu bakarra zuten, baina zenbait kasutan gehiago zituzten, bereziki, beheko aldeetan zeudenak.




Ortoargazkia 1945-46. Amerikar Hegaldia, A bilduma. San Ignacio. Fuente: EJ/GV, geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.

Txaboletaraino iristea zaila izaten zen, maldak zirela eta. Txabolek bide publikoren batetik abiatzen ziren kaleak eratzen zituzten eta, oro har, ez zuten zoladurarik, beraz, euria egiten zuenean, lokatz bilakatzen ziren. Horrez gain, ez zegoen argi elektrikoko, gas edo iturriko uretako zerbitzurik. Normalean, argia meatzariek erabiltzen zituztenen antzeko karburo lanparen biez lortzen zuten, baina ahal zutenean, argiztapen publikotik hartzen zuten; sukaldea ekonomikoa zen eta egurra eta ikatza erregai gisa erabiltzen zituzten. Edateko ura lortzeko, gertuen zituzten iturri publikoetara jotzen zuten behin eta berriro eta beste erabileretako ura, berriz, ontzietan biltzen zuten, eta hura biltzeko txaboletako estalkiak erabiltzen zituzten. Bainua terreinetan egiten zen eta arropa garbitzeko garbitegi publikoren batera joan behar zuten.

Txabolen barnean, oro har, nolabaiteko konpartimentuak egiten ziren; logela bat edo bi eta aldi berean egongela lanak egiten zituen sukalde bat izaten zuten. Sarritan etxe-abereak izaten zituzten (batez ere



Lezamako bide zaharreko herrixka. Ortoargazkia 1945-46. Amerikar hegaldia, A bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza / G. Vasco; geoEuskadi Geografia Erakunde Nazionala.



Berriz gaineko herrixka. Ortoargazkia 1945-46. Amerikar hegaldia, A bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza / G Vasco; geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.

oiloak), txaboletako biztanleekin elkar bizitzen, eta hein berean, askotan, txabolaren ondoan baratz txiki bat ipintzen lortzen zuten.


Txaboletako auzuneak hogeita hamar baino gehiago ziren. Eskuineko aldean: Cabras Mendia, Banderas Mendia, Berriz Gaina, Miramar, Buenavista, Ugasco, Haizeola Bidea, Lezamako Bide Zaharra, Artxandako magala, gaur egungo Otxarkoaga, Caño pasealekua, Sagarminaga.

Ezkerreko aldean: Castrejana, San Ignacio, Kobeta, Masustegi, Caramelo Mendia, Betolaza, Uretamente, Armotxako Bidea, Iturrigorri, Peñascal, San Antonio, Larrasquitu, Irusta eta Buia.

Erdialdean: Capuchinos, Olabeaga, Luis Briñas kalea, Ingelesen Landa, Torreurizar, etab.

Txabolismoa Bilboko udal mugartean ez ezik, gertuko zenbait udalerritan ere garatu egin zen.

Otxarkoagako auzoaren eraikuntza bezalako jardueren eraginez (bertan txaboletako biztanle asko behartuta atera zituzten), txabola asko desagertu ziren. Biztanleak ateratzen ziren heinean, txabolak eraisten ziren. Izan ere, 1965eko ortoargazkian, herrixka ugari desagertu dira. Beste batzuk, berriz, Betolaza edo Uretamendi bezala, horiek legalizatzearen eta txabolak etxebizitza arruntengatik ordezkatzearen alde borrokatu ziren.




Cabras Mendiko herrixka,Ortoargakzia 1945-46. Iturria: E. Jaurlaritza / G. Vasco; geoEuskadi. I G Nacional. UTM 30N ETRS89 // X: 503151.m // Y: 4792535 m.



Banderas herrixka. Armadak 1961ean eraitsi zuen. Ortoargazkia 1945-46. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.




Txabolak Ingelesen landa herrixkan (gaur egun Abandoibarra) 1950eko hamarkadaren amaieran.



La Peña herrixka. Ortoargazkia 1945-46. Amerikar Hegaldia. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi Geografia Erakunde Nazionala.




Ollargan herrixka, Arrigorriagako udal mugartean. Denboran iraun zuen herrixketako bat izan zen. 1976. urtean oraindik existitzen zen. 1983ko ortoargazkian, dagoeneko, ez da agertzen. Ortoargazkia 1965. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Bizkaiko Foru Aldundia.



Ingelesen landa herrixka (Abandoibarra). Ortoargazkia 1945-46. Amerikar hegaldia, A bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco. Geografia Erakunde Nazionala.



Txabolak eta norberak eraikitako etxeak Masustegi herrixkan. Ortoargazkia 1956-57 Amerikar hegaldia, B bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi Geografia Erakunde Nazionala. Denboraren poderioz, herrixkak nabarmen egin du hobera, baina hirigintza planeamendutik kanpo egon zen, haren lurzoruaren zati batek meategi enpresa baten jabetza izaten jarraitzen zuelako. Udalak lurralde hauek erosi zituen 2010ean, eta hortik aurrera, 1500 biztanle inguru zituen auzo baten hirigintza normalizazioa abiatu zen.



Ortoargazkia 1956-57, Amerikar hegaldia, B bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi Geografia Erakunde Nazionala.

***1 Peñascal: 1949**. urtetik aurrera eraikita, batez ere adreiluzkoak; biztanleak, oro har, Gaztelako jatorrikoak dira. 1964an kooperatiba bat antolatu zuten etxebizitza berriak eraikitzeko, Etxebizitza Ministerioaren eta Elizaren laguntzarekin.*

2 Gardeazabal.

***3 Iturrigoiti:** Biztanleen zati bat Otxarkoagara joan zen 1961ean, baina beste batzuek, berriz, herrixkan bizitzen jarraitu zuten.*

***4 San Antonio:** 1945ean hasi ziren eraikitzen, batez ere, Kantabria eta Burgoseko pertsonekin. Harria eta adreilua eraikuntza material gisa erabili zituzten. 1983ko uholdeek herria nabarmen kaltetu zuten, eta 1990eko hamarkadan desagertu zen.*

***5 Uretamendi:** Bereziki egurrez eraiki zuten 1948. urtetik aurrera, gehienbat Gaztelatik eta Extremaduratik etorritakoen eskutik. Horiek guztiek, 1960eko hamarkadan, kooperatiba bat osatu zuten herrixka legalizatzeko eta hirigintza baldintzak hobetzeko.*

geo euskadi